Glukosa-galerak energia-galera handia suposatzen du.

Glukosa-galerak energia-galera handia suposatzen du.

- Energia-galera handia *dakar* glukosa-galerak.
- Energia-galera handia *eragiten du* glukosa-galerak.
- *Glukosa-galera dela eta, energia asko galtzen da.*

- Galera ekonomiko handia *dakar* enpresen urruntzeak.
- Galera ekonomiko handia *eragiten du* enpresen urruntzeak.
  - *Enpresen urruntzeak galera ekonomiko handia suposatzen du.

- Tratamendu psikologikoaren definizio bateraturik ez izatea ***ekarri du*** egoera horrek.
- Tratamendu psikologikoaren definizio bateraturik ez izatea ***eragin du*** egoera horrek.
- ***Egoera horren ondorioz, ez dago*** tratamendu psikologikoaren definizio bateraturik.
  - *Egoera horrek tratamendu psikologikoaren definizio bateraturik eza suposatu du.

- Bidegabea da jarrera hori, guztion patriketatik banaka batzuen kontuetara dirua sartzea ***baitakar / dakar eta.***

- Bidegabea da jarrera hori; ***izan ere, guztion patriketatik banaka batzuen kontuetara transferitzen da dirua.***

- * Bidegabea da jarrera hori, guztion patriketatik banaka batzuen kontuetarako diru-transferentzia suposatzen duelako.